

TANGOAREN ESKEAN

Eider Perez Martinez

Pasai San Pedro

Urduri mingainak dirudi
lasaitasunak engaina nazala
eta azala busti izerdiz
erdi malkoz, erdi euriz
koloretako ametsaren egarriz
behin eta berriz, behin eta berriz.

Isiltasunak badu esanahia;
ahotsak gehiago esateko nahia.
Ahoak, orduan, hasi du esaldia
eta lotsati bota egia.

Bi begi adi-adi,
aitormena segi eta segi.
Badator hitzen balada
segituan begiradam
eta badoa erantzuna.
Entzuna izan da desioa.
Ahoa, ezpain umela
apain, listua duela.

Jaso musua,
nabari barne sua
eta jarraian eskua
biluzten ari den gerrian pausatua.

Patua omen dela gure artekoa,
baina gezurretakoa;
ipuin bateko amaiera ezohikoa,
gure munduetako batean asmatutakoa.

Beste eskua bizkarrean,
gauerdiko tangoaren eskean.
Eta bularrak bularra ukitzean,
erritmoa azkartu,
arnasa hartu eta hartu,
bandoneoiaren konpasean;
bularra ukitzean.

Taupadak badoaz melodian barrena;
inon ez etena,
nahiz bihurtu pausoa herrena
dantzak badu jarraipena.

Baina betirako izango denaren sentipen sutsua,
beste behin, aurpegian islatua.
Pentsamendu nahastua,
desio faltsua;
gezurretakoa dela patua!

Arnasestuka bi dantzari,
nekea da nabari.

Besarkada izan da aurrena,
barealdia hurrena.
Eta azkena, ihes egin didan hasperena:
funtsean biok garena;
hasperena.
Desioari elkarlotzen gaituena;
Bagarena.
Hasperena.